

Gurbea eta udalatxa

ARABAR ERRIOXAN da Eskuernaga. Bertakoek hala deitzen dute, Euskaltzaindikoek bere artean lehen Uriona eta orain Villabuenana. Eskuernagan baden dena ardoa da, eta paisaia mahasti. Lehen besterik ere izango zen, fruitu arbolak, baratze, labore-soro, baso-koskor... Paisaia kulturala murriztua dute egun eta ardoak dakarren aberastasuna ikusita, zaila da joera hori iraultzea.

Mahasti artean badira oraindik lehenago haien arrastoak: errekas-toen aldamentako baratzeak eta

mahasti arteko zuhaitz eta arbola bakanak, batik bat.

Ia ahaztua nuen bat topatu dut tartean: gurbea, *Sorbus domestica*. Otsalizarraren, *Sorbus aucuparia*, hostazuriaren, *Sorbus aria* eta maspila edo basagurbearen, *Sorbus torminalis*, senidea da gurbea. Erka-meztiek eta artadiak bere dituzten lurretan hazten da ongi, baita mahastietako ipularretan eta haien arteko pendiz eta ezpondetan ere. Itxuraz, erromatarrek ekarritako fruitu arbola da gurbea. Eguzkizalea eta berozalea izateaz gain lurra karetsua eta ura tamainan duten

tokiak ditu maite. Urak Mediterraneoari ematen dizkion Euskal Herrian etxean bezala aurkitzen da. Geurean ale bakan batzuk besterik ez ditugu, erlikia bat! Fruitua, gurbe-alea, udalatxa edo udarelatxa, ia inork ez du ezagutzen eta ez da ez bildu ez erabiltzen... Frui-tugintzarako hedatu zenez orain galtzeko arrisku bizian dago. Gutxi dira baina bake-bakean, luze biziko al dira. Luzeen bizi dena eta gerri zabalena duen gurbea non den dema handia dago. ■



JAKOBA ERREKONDO

Sugi

Jaki japoniarren zalea naiz. Geureen tankera handia hartzen diet, eta gustatu egiten... Hango eta hemengo jakiak eskaintzen dituen jatetxe batean izan berria naiz. Mahaikideak sushi aukera dastatu nahi eta hor dakarte zurezko oholtxo batean. Etxekoa dugu egurrerako joera eta gainekoari baino lehenago begiratu nion zurari. Deigarria egin zitzaidan,

hamalau zentimetro eskaseko puskan 90 urteko eraztunak zituen! Eta ezin tentazioari utsi. Hor galdetu diot zerbitzari japoniarrari: zer egur den ba ote dakien. Bere iritziz “sugi” deitzen duten bat omen, baina sukaldetan galdetuko duela... Bueltan, baietz hori dela uste dutela. Nik telefonoari laster galdetu diot zer arraio den “sugi” hori, eta berehala eran-

tzuna: *Criptomeria japonica*. Bat-batean zuhaitz horren burrunba etorri zait burura. Japonian ia sakratua da. Urte batzuk badira etxeko sailetan basotxo bat landatua dudala eta poliki dator. Deigarriena, hala ere, sukaldariak eta zerbitzariak zuraren kultura berea izatea. Hemengo-
ei galdetu behar! ■

